

Aurretik esan dugun bezala, jendartean elkarbizi diren bi segmentuei bideratuta egongo da proiektu hau; alde batetik, normaltasunaren* barruan dauden pertsoneri eta, bestetik, normaltasun* horretatik kanpo daudeneri.

Startinnovan landu dugun bezala, merkatu moten artean, merkatu aldeaniztunak topatuko ditugu, honela definitzen direnak: negozio berdina batek bi erabiltzaile mota desberdin biltzen dituenean. Merkatu mota honek gure negozio ereduarekin zuzeneko harremana du, elkarren mendekoak izango diren bi erabiltzaile mota izango ditugu, izan ere, jendarte berdinen parte baitira. Bi erabiltzaileak espazio berdina eta ekintza berdina egingo dituzte.

Garrantzitsua da aipatzea nahiz eta bi erabiltzaile mota izan, bietako baten nagusitasuna bultzatuko dugula; hain zuzen ere normaltasun* horretatik kanpo geratzen direneri bereziki erreparatuko diegu. Izan ere, sektore horretan behar handiago somatzen dugu, hala nola, eskaintza urriagoa baitute.

Gure aisialdi programan parte-hartuko duen bezeroaren perfilak baldintza hauek bete beharko lituzke:

- 12/20 urte bitarte izatea.
- Bizkaian edo Durangaldean bizitzea.
Gazteen artean sareak sortu nahi ditugu, haien arteko harremanak sustatuz zaintza batean oinarrituz. Herriak saretu nahi ditugu, Bizkaia aberastuz eta elkarrenkintzan arituz. Guztia aurrera eramateko aukera paregabea iruditzen zaigu aisialdiko taldea osatzea eta eratzea.
- Euskaraz mintzatzeko grina izatea.
- Naturarekiko harremana garatzeko grina izatea.
- Tarte batez mugikorra alde batera uzteko gai izatea.